



**SAN INAZIO ELIZA**  
**B MAILA**
**ZABALETA 18**

**Egilea eta data: Jose Goikoa, 1892.**
**Deskribapena**

Elizaren proiektua 1892koa da eta obrak 1897an amaitu ziren ia guztiz. Goikoak estilo neogotikoa hartu zuen eliza egiteko arau gisa. Hala ere, estilo tradizional gotikoari dagokionez, zenbait muga ezarri zituen; izan ere, nabe nagusiko arkutera-galeria-klaristorioko eredu atala erreproduzitu zuen gurutzaduran ere, transeptuko nabe gurutzatua saihesteko. Horrenbestez, oinplanoak ez du gurutze forma, baina bai bobeda nagusi bat. Elizaren burua ere modu sinpleagoan dago osatuta, giroa gabeko abside batekin. Bi nabe txiki osatzen dute sekzioa eta, nabe nagusiarekin batera, elizaren kanpo profila eratzen dute. Irudi apala du, Uliako harlangaitzez eta harlanduz eraikitako hormak direla bide, arkitektura gotikoaren itxura arinetik urrun. Bestalde, ohi ez bezala, dorrea hiru zatitan osatuta dago, irizpide klasizistagoari jarraituz; sarbideko eliz atariaren gaineko dorre nagusiaren alboetan, eta, hura sendotzeko, bi dorre txiki aurkituko ditugu. Barrualdean azpimarratzekoak dira Maumejean beirateak, organoa eta Benlliurek egindako Jesusen Bihotza.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan berezi honen B babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Elementu edo zati iraunkorrak: kanpoko eta barruko harlanduzko eta harlangaitzezko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa bereziak:
    - \* Jasodurak ez dira onartzen.
    - \* Elizaren nabearen barrualdea aldatu gabe kontserbatuko da, jatorrizko elementu guztiak errespetatuz.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.